

**GIZARTEAREN
ZATI BATEK...
SOBERAZKO
JANARIAK DITU**



**GIZARTEAREN
ZATI BATEK...
SOBERAZKO
JANARIAK DITU**

2024
M E M O R I A

GURE IZATEAREN FUNTSA

Ezaugarritzen gaituen kemena

TALDEA

Pertsona engaiatuak

BABESA

Arabako gizartearekin
elkarlanean, bere babesa
eta laguntza iraunkorra jasoz

BILKETA ERRALDOIA

Azaroaren 22-23an

BANAKETA

Behar handien dutenei begira

LORPENAK

Nola igaro da 2024 urtea

ERRONKAK

Nola egin aurre 2025 urteari

ERANSKINAK

KONTULARITZA 2024 URTEA
2024 ESKER ONA EMATEN DIEGU



Faltan eta soberan dagoena

Edozein erakunderen Urteko Memoria-ren balantze eta zenbakiez harago, hemen aurkezten denaren goiburua nagusia azpimarratu nahi nuke: 'Gizartearen zati bati janariak soberan geratzen zaizkio, eta beste bati... iritsi ere ez'. Hara hama-bost hitzekin ezin hobeto laburbildua Elikagaien Bankuak sorreratik izandako arima. Aldi berean balantzaren zein aldetan dabilen hausnartzera gonbidatzen digu. Kontzientziak sustraieratzen astintzen ditu: beharrak eta alferrik galtzearen kontraesana. Sakoneko bidegabekeria da gure artean janaririk gabekoak izatea.

Bide horretan gogoratzekoa da Elikagaien Bankuek emateko biltzen duela, gizarte eskuzabaltasunak administrazioarekin bat eginda gure zeregina funtsezko bilakatuz, elikagaien industriaren eta banaketaren soberakinak behar dutenei helarazten baitie.

2024ko Memoria aurkeztean Arabako Elikagaien Bankuaren familia handia osatzen dutenen lana aitortu behar da. Berziki eskerrak eman behar zaizkio, beste behin ere, gosearen amildegira hurbildu eta laguntzeko sentsibilizatuta dabilen gizarteari. Urteko azken zatian zorigaiztoko Danak gizarte kolpatu zuen, Valentzian atsekabea eta heriotza sortuz. Eta ondorioz Bilketa Erraldoia baldintzatu.

Memoria osoa laburbiltzen duen urtearen itxiera horrek, gure kasuan, duela hogeita bost urte Elikagaien Bankua abiaraztean hasitako ibilbidea aurreratzen du. Emaileen elikagaiak biltzeaz arduratzen ziren bi familietatik sortu zen Bankua. Euren ekimenaz birziklatu eta doan eramaten zituzten Bekolarra kalean alokatutako lokal batera, 2014ra arte egoitza izan dena. Elikagaien Bankuko sortzaileei pizgarri izandako izpiritu beraz jarraitzen dugu gaur, eta ziurta dezakegu azken urtetan prezioen igoerarekin bizitako tentsio asko gainditu direla, baita hobetu banaketa talde eta kontsumo-elkarteei emandako ohiko jakiak. Tentsio inflazionistak arindu egin dira, haurren arretan poto txikiak, galletak eta zerealak banatuz.

Ezarritako berrikuntzen artean FEAD Programa Eragingarriaren amaiera dago, horrek elikagai eta finantzaketaren sarre-iturri garrantzitsu bati uko egitea ekarritik. Administrazioak aukeratutako txanpon-txartelaren bidez zuzeneko emankizunak Nekazaritza Ministerioaren zeharkako sistemara aldatu izanak eraginkortasunari buruzko zalantza ugari sortu ditu, denboraren joanean baino ezin izango direnak baloratu. Plan berriak familia kalteberen sektorearen arreta murrizten du (seme-alaba txikiak dituzten senar-emazteak), ezinbestean oinarritzko elikagaien premia duten gainerako taldeen arreta egoera kezagarrian utziz.

Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako borroka lehentasun



bihurtu da egunero zaborrontzietara janaria botatzen den gizartearen. Elikagaien Bankuek lehen urratsa eman dute proiektu berritzailer batean, elikagai-soberakinak kudeatu eta behar handien dutenei banatzeko modua iraultzea helburu duena. Plan horrek elikagaiak alferrik galtzearen aurkako langa berria dakar. Horrerako prestatzen jarraitzen dugu, Bankuen etorkizunerako garrantzi handikoa baita.

Bilketa Erraldoiak elkartasunaren erakuslerik onena izaten dirau, Arabako gizarte-muina iristeko benetako autobidea, 2024an jasotakoaren erdiari Valentziako Danak kalte-

tuen aldeko arreta indartzeko konpromisoak markatu dio. Ildo horretan Vital Fundazioaren keinua nabarmendu nahi nuke, Bilketa Erraldoiko partehartzaile arabar bakoitzeko euro 1 gehiago emateko konpromisoa hartu baitzuen. 50.000 partehartzaile izan zirenez, 50.000 euroko ekarpena lortu da.

Aste batzuk lehenago, Sofia erregina Bankuak Gasteizko Jundizen dituen instalazioak bisitatzen joan zen, eguneroko funtzionamendua ahalbidetzen duten boluntarioen lana babestera. Estimua eta hurbiltasuna helarazi zien. Boluntario finkoak, noizbehinkakoak eta Bankuari funtsak eta elikagaiak ematen dizkioten erakunde eta pertsonak dira duela 25 urte proiektua sortu zutenen oinarritutakoak, haiek oinarritutako misioaren jarraitzaile.

Memoria batek egindakoa biltzen du, baita etorkizun hurbilean jarraitu beharreko bidea. Oraina eraikitze lagungarri da iragana, akatsak zuzendu eta ondo jardundako atalak sakontzeko. Urte berrian produktuei bigarren erabilera ematen tematuta egon behar da. Jateko desegoki diren elikagaiak sarrera-pabiloian zehatzago eta zorrotzago bereizi, hautatu eta baztertuko dira. Boluntarioak onuradunen artean bilatzea sakonduko da, baita eguneroko elikadura hobetu beharrean daudenengana iristen saiatu, euren lekuetan bilatuz. Supermerkatu guztietan soberakinak biltzeaz gain, une jakin batzuetan beste Banku batzuekin trukeak egokitu beharko dira, baita gizartearen sentsibilizatze lanetan jarraitu, eta elikagaiak jasotzen arduratzen diren elkarteei banakako arreta eman, garraio logistika zein hurbileko banaketarako lokal bat ahalbidetuz.

Daniel Fernandez Conde

Arabako Elikagaien Bankuko Elkarte-burua

GURE IZATEAREN FUNTSA

Ezaugarritzen gaituen kemena



1998ko martxoaren 16an Eusko
Jaurlaritzaren Erregistroan inskribatutako
irabazi-asmorik gabeko elkarte da
2002ko urtarriaren 8an Herri Onurako
Elkartea izendatua



Soberakinak alferrik galtzea saihesten

Berriro erabili orde, soberakin gisa botatako elikagaiak galdu egiten dira. Elikagaien hornidura katearen hainbat etapatan garatzen da, hala nola ekoizpenean, prozesamenduan, banaketan, etxeetan eta kontsumo saltegietan.

Etxe barruan eta kanpoan alferrik galtzearen kopuru osoa **1.214,76 milioi kilo/litro** izan da Espainian, aurreko urtean baino % 1,1 gehiago. Kopuru horretatik, **1.183,42 milioi kg/l etxe barruan alferrik galdu ziren** (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa - 2024ko iraila)

Elika Fundazioak egin berri dituen ikerketen arabera, Euskadin, batez beste, **111 kilo elikagai galtzen dira alferrik pertsonako, eta horietatik 40 kilo** elikagai jangarriak dira.

Elikagaien Bankuan egiten diren funtsezko lanak helburu horretan oinarritzen dira gizartearen kontzientziaztea piztu nahian, batez ere gazte eta haurrena..

Elikagaiak eta erosteko dirua biltzen

Azken sei urteetan jatorri desberdinetako **12.886.581 kg** janari bildu ditugu (nekazaritza eta abelzaintza industriaren eta supermerkatuen hondarrak, bilketa-kanpainak, Europako Funtsen eta FESBALen programak...), eta **1.989.477 kg** erosi dira dohaintzetatik ateratako diruarekin.



Gehien behar dutenen artean banatuz

36.706 helduk eta **1.980 adingabek** jaso dituzte elikagaiak azken sei urteetan. Horrela, **9.636 familiak** baino gehiagok beren elikadura osatu ahal izan dute Arabako Elikagaien Bankuaren ekarpenekin.

..... eta helburu horiek lortzeko,

nolako lan egin dugu 2024an?

TALDEA

Pertsona engaiatuak

Arabako Elikagaien
Bankuak berekin ditu:

- 63 boluntario iraunkor eta aktibo ordainsaririk gabe
- 2 pertsona lanaldi erdira kontratatuta



ZUZENDARITZA TALDEA

Elkarte-buru:

Daniel Fernandez Conde

Buru-orde:

Daniel Muñoz Gomez

Idazkari:

Eva Maria Gil De Prado

Diruzain:

Jaime Bobadilla Sancha

Batzorde-kideak:

Miguel Bengoetxea Romero

Susana Corral Marrodan

Oscar L. Heras

Natividad Martinez G^a de Vicuña

Jose Niso Sadans

Batzorde Iraunkorra

Miguel Bengoetxea Romero

Jaime Bobadilla Sancha

Daniel Fernandez Conde

Daniel Muñoz Gomez

BOLUNTARIOAK LAN

SAILKA:

Presidentetza Batzordea

Francisco Beltran Urcelay

Daniel Fernandez Conde

Jesus Maria Garcia Morketxo

Idazkaritza Saila

Eva Maria Gil de Prado

Administrazio eta ekonomia saila

Administrazioa

Lourdes Arambarri Bengoa

Cristina Maestro Pelegrín

Gizabaliabide eta Lan Arriskuak

Dolores Lana Zabala

Informatika Sistemak

Andoni Zaldúa Iñurritegi

Kontularitza

Jaime Bobadilla Sancha

Ana Castaño Valiente

Baliabide saila

Kanpainen kudeaketak eta Bilketa Erraldoia

Luis M^a Barruso Guilarte

Luis Daniel Camara Pascual

Jesus M^a Ciganda Iriarte

Miguel Angel Fdz.de Matauco Martinez

Sentsibilizatze eta zabalkundea

Salvador Aledo Amoros

Ana Duque Leivar

Andres Rodeiro Louzao

Elikagaien saila

Jakien kudeaketa

Susana Corral Marrodan

Rosario Diaz de Cerio Ruiz de Urra

Patxi Elorza Honrado

Fco. Javier Irisarri Lpz. de Goikoetxea

Yon Maeso Mendizabal

Daniel Muñoz Gomez

Logistika eta biltegia Garraioa

Andoni Arambarri Uranga

Luis Ignacio Bengoa Guinea

Segundo De la Hera Garcia

Pedro Giraldo Cruz

Oscar Luis Heras Alzaga

Jose Miguel Lpz. de Añua Garcia

Eleuteria Martin Andres

Javier Martinez Camarillo

Jose Antonio Munguía Lopez

Alonso Perez de Mendiola Argote

Jose Maria Macario Valencia
Arbonies

Biltegia - 5. Pabiloia

Isidro Bada Hernandez

Miguel Bengoetxea Romero

Fortunato Cibrian Castillo

Biltegia - 6. Pabiloia

Matias Becares Botas

Angel Garcia Mesanza

Pedro Luis Gil Vara

Jokine Godoy Cristobal

Gabriel Jaraba Melgarejo

Eunate Jz.de Aberasturi Larrea

Gregorio Morante Serrano

Ana Murua Isasi

Antonio Navarro Murillo

Jose Niso Sadans

M^a Dolores Rodriguez Acevedo

Angel Ruiz de Azua Mendivil

Mantentze lanak

Ricardo Glz.de Zarate Fdz.de Aranguiz

Ramon Rodriguez Merinero

Elkarteak saila

Jose Luis Cortazar Ibañez

Gonzalo Dz. de Espada Fdz. de Monje

J. Andres Gabilondo Mallaviabarrena

M^a Luisa Garcia de Vicuña Ortueta

Eustaquia Comea Barredo

Natividad Martinez Garcia de Vicuña

Eufemia Palacin Vaquero

Brasil kaleko biltegiaren banaketa taldea

Sagrario Berceal Blanco

Kanza Lharchi

Jose Antonio Ochoa Aguirre

Jose Antonio Ruiz de Larrea

Manuel Prudencio Saez de Castillo
Izquierdo

2024 urteko Bilketa Erraildoirako taldeen arduradun koordinatzaileak

Arce, Mari Carmen

Artetxe, Salva

Baticon, Begoña

Becares, Matias

Beitia, Laura

Camara, Daniel

Casado, Jose Luis

Corral, Susana

Díaz de Argandoña, Antonio

Díaz de Espada, Gonzalo

Díaz de Guereñu, Tomas

Echanove, Merche

Egurcegui, Lourdes

Espariz, Luis Alfonso

Garmendia, Mikel

Gil Ortiz, Lourdes

Grupo Zaporeak

Cubia, Julian

Guzman, Cesar

Izal, Mitxel

Landazabal, Jesus Maria

Lopez de Munain, Felix

Lopez de Munain, Marian

Lourido, Alfonso

Martin, Sebas

Martinez, Maria Victoria

Melguizo, Pilar

Moreno, Marisa

Ochoa Ortiz, María Asun

Peña, Angel

Perez de Arrilucea, M. Carmen

Reyes, Juanjo

Ruiz Aguirre, Bernardo

Saenz, José María

Simon, José Manuel


Sosoaga, Eduardo

Yeregui, Roberto

Zabala, Manuel

BABESA

Gizartearekin etengabe
harremanetan, beragandik laguntza
eta babesa iraunkorki jasoz



Sentikortasuna zabalduz

Hitzaldiak 20 ikastetxetan 1317 ikaslerekin. Osagarri gisa, bilketak 2.528 kilo elikagai bilduz. Zentro horietako hiruk Jundiz-ko lantokia bisitatu zuten. Gehiago joan izango ziren bidaiarako diru-laguntza izan ezkeror. Diru-laguntzak lortzen saiatuko gara.

Parte hartutako Ikastetxeak

Institutuak (Unamuno, Lakua, Mendebalde, Zaratze, Koldo Mitxelena, Ekialde, Ciudad Jardin) - Ikastetxeak (Urkide, Virgen Niña-CEU, Carmelitas, Inmaculada, Mercedarias, Unamunzaga, Corazonistas, San Prudentzio, Veracruz, Aldaialde Toki Eder Ikastola eta Hegoalde Liburutegia).

Informazioa emanaz

Bankuaren lanaz informazioa tokiko komunikabide eta sare sozialetan: prentsa-oharrak, txostenak, erreportajeak....

Web orri interaktiboa (<https://bancoalimentosaraba.org/>).

Correo egunkariko "El Rincón Solidario"-n eduki sozialeko artikulak aldizka argitaratuz.

Erakundeekin hitzarmenak lortuz

Vital Fundazioa: aurten erakunde honek ezohiko laguntza eman du, Valentziako Danak eragindakoei laguntza Elikagaien Bankuen bidez helarazteko. Horrez gain, laguntza ekonomiko etengabea luzatzen zaie urtean zehar proiektu orokorre eta beste egitasmo bereziei, hala nola material erosketak, sustapen-kanpainak eta 2024ko Bilketa Erraldoiaren informazio-kanpainaren antolaketari.

Gasteizko Udala: urteko diru-esleipenaren hitzarmena. Horrekin batera, Gizarte Laguntzarako Zerbitzuen bidez onuradunak baloratzeko lanak.

Eusko Jaurlaritzaren Arabako Foru Aldundia: urteko aurrekontuetan izendunak diru-laguntzak sartuz.

Arabako Batzar Nagusiak: Elikagaien Bankuko ordezkarien agerraldia Gizarte Politiketako Batzordearen aurrean Bankuaren egoera orokorra azalduz eta behar premiazkoenak adieraziz, hala nola Jundiz-ko industrialdean behin-behinean hartuta dugun lantokiaren lagapen iraunkorra jasotzeko.

Balitzko onuradunak identifikatzeko zerbitzuak ematen dituzten **Erakundeak**, Gizarte Laneko eta/edo beste prozedura batzuetako profesionalen bidez. Horien artean:

- Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartea
- AFARABA: Alzheimer jasaten dutenen familia-kide eta lagunen Elkartea
- Euskadi-Ecuador Solidaritza Elkartea
- Berakah Programa, CEAR, ADSIS Fundazioa
- Itaka-Eskolapioak Fundazioa, Artziniegako Udala
- Añana, Kanpezu, Arabako Mendialdea, Agurain eta Gorbeialdeako Koadrilak
- Sallurtegi (Agurain) eta Duladea (Dulantzi) Elkartek
- Músicos sin Fronteras, Cuatro Torres Elkartea, Nuevo Futuro Elkartea

Ekitaldi eta kanpaina solidarioak sustatuz

Horrelako ekimenak asko ugaritu dira. Adibide gisa honako hauek aipa ditzakegu:

- Gurasoak-San Viator Abesbatzarekin batera kontzertua Elisa Ruedak, Jesus Iturralde eta Nika Bilchashvili
- Caixa Fundazioaren "Elikagairik gabeko etxerik ez" kanpaina
- Okerrak eta Basatiak blusen koadrilak "Ama Zuriaren" jaietan
- Araba zeharkatuz, Juanma Olivak eta bere elkarte "Realidad Bipolar" sustatua
- Gasteizko Gizarte Etxeen "Kilo gora, kilo behera" kanpaina
- "Saltxitza Solidarioa" Comunion herrian
- Bilketa kanpainak, hauek sustatuak: Angostoko Kanpina (Araba) eta San Inazio futbol taldea
- San Mateo parrokia
- Lakalpy (Artziniega) bizikleta martxa
- Domusvi Ariznabarra eta San Prudentzio Zahar Egoitzak

Elkarte, enpresa, erakunde eta bestelakoen dohaintzak jasoz

Askoren artean:

- Maeztu eta Antioñana-ko Herri Batzarrak, Arabako Abokatuen Elkargoa, Helen Doron Gasteiz Akademia, Curves Gimnasioa, Michelin Pneumatikoak, Valle Salado Fundazioa, Marca Irratia, Aldabe Gizarte Etxea, XPO Logistika-Gasteiz, Indar Baskonia, Eltziegoko San Andres Kofradia, Manuel Iradier Mendizale taldea, Vithas (San Jose Ospitalea), Azkena Rock Festibala
- Pepsico VCC Beverages-ko langileak (Arabako Parke Teknologikoan), Grupo Diferenciales-ko langileak, Miñako Basquevolt

Elkartasuna beharrezko diren beste batzuekin, hala nola:

- Lesbos uhartean diren errefuxiatuak. Zaporeak banatuta 22.922 kilo jaso zuten (kontserbak, haurrentzako eta higieenezko diren produktuak).
- Abereen aldeko Lagunak Elkartea. Elikagai eta animalientzako produktuetan 1.000 kilo baino gehiago eman zaizkio.
- Levanteko Danak kaltetuak, Valentziako Elikagaien Bankura 100.000 € bidaliz Arabako norbanako eta Vital Fundaziotik jasoz.

Ezagutu nahi gaituztenei gure lantokietan harrera emanaz

Ikastetxe eta Elkartetako taldeak... baita erakundeetako ordezkariak, hala nola Sofia erregina eta Elikagaien Bankuen Federazio den FESBAL-eko Zuzendaritza Taldea.


Euskadiko lankideekin batera azken urtean egindako lana ospatuz

Anfitrioi gisa, Bizkaiko eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuetako 200 boluntario baino gehiago hartu genituen Errioxako Guardia herrian. Herriko agintariak eta Ramiro Gonzalez Ahalduen Nagusia bertan zirela, Federazioaren Batzar Orokorra egin eta Arabako herri eder horren turismo eta gastronomia bikainez gozatuz.

BILKETA ERRALDOIA

Azaroaren 22-23an

Urtealdi honek ezaugarri bereizgarri bat du. Valentzian uholdeek eragindako hondamenaren ondorioak Arabako Elikagaien Bankua bultzatu zuten bildutakoaren zati bat Danak eragindako gabezia larriak konpontzera bideratzera.



Bilketa Erraldoia azaroaren amaieran egin zen, eta Bankuaren beharrak ikusarazi eta gizarte elkartasuna sustatzea zuen helburu. Jasotakoak baikortasun zuhur batera garamatza. Lortu dena espero bezain altua ez izan arren, onuradun kopuruak pixka bat behera egin baitu, erakundeak bere zerbitzuak eskaintzen jarraitu ahal izango ditu eta premiazko eskaerei erantzun.

Laster indarrean sartuko den Elikagaien Galera eta Xahutzeari buruzko Legeak alferrik galtzen diren elikagai tonak murriztea du helburu. Aukera bikaina da Elikagaien Bankuek produktu horiek jaso ahal izateko. Ekimen horrek elikagai kopuru esanguratsua ekar lezake, bereziki freskoak eta galkorrak, baina ba liteke nahikoa ez izatea iraupen luzeko/ertaineko bestelako jaki batzuk behar dituzten helduen eta adingabeen elikadura-beharrak erabat asetzeko.

2024ko Bilketa Erraldoiak galkorrak ez diren jakiak, elikagai-bonuak eta eskudirutan emandako dohaintzak bildu zituen, eta horrekin "oinarrizko dieta" gisa ezagutzen den multzoaren funtsezko jakiak eskuratu ahal izan dira, hala nola lekaleak, pasta, olio, esnea eta haragia, besteak beste. Gainera, artatzen ditugun pertsonentzat beharrezko zaizkien higie-ne-gaiak eta haurrentzako produktuak erosteko dirua bideratu da.



Hortaz, kanpaina hau funtsezkoa da gure biltegiak "bete" eta 2025. urteko emanaldiak bermatzeko, gehien behar dutenei beharrezko laguntza eskaintzen jarraitu ahal izango dugula ziurtatuz.

Kanpaina ia Elikadura kate guztiek babestu zuten, eta **90 denda** baino gehiagok ireki zituzten ateak. Ia **650 boluntariok**, heldu eta gazte artean, bezeroei arreta eman zieten, helburuen berri jakinarazi eta lankidetzan aritzera animatuz.

Jasotako azken emaitza 330.295 izan zen, elikagai, bonu aldagarriak eta dirua batuta. Aurreko urtean baino % 0,46 gutxiago.

Bankuak eskerrak eman nahi dizkie kanpaina babestu duten guztiei, besteak beste, dohaintza-emaileak, supermerkatu eta komunikabideak, eta aipamen berezia egin nahi die merkataritza-guneetan herritarrak zerbitzatu zituzten boluntario eta koordinatzaileei.

ZENBAKI PAREKAGARRIAK

	Jakiak kilotan	Bonu aldagarriak	Dirua	GUZTIRA
2021	-	167.505 €	69.280 €	236.785 €
2022	49.409 kg - 87.454 € (1)	149.038 €	87.980 €	324.472 €
2023	44.595 kg - 89.190 € (2)	127.674 €	115.240 €	332.104 €
2024	51.250 kg - 102.500 € (2)	108.920 €	118.875 €	330.295 €

(1): Jaki kilo 1.77 euroko balioan

(2): Jaki kilo 2 euroko balioan

Bildutako elikagaiak

Jatorriaren arabera

	2022		2023		2024	
	Kg	%	Kg	%	Kg	%
Kanpainak (elkartek, enpresak, ikastetxeak...)	43.412	2,25	46.246	2,36	52.408	3,03
Bankuaren funtsekin egindako erosketak eta industriek emandakoak	1.389.092	72,12	1.307.295	66,73	1.193.680	69,13
Bilketa Erraldoikoak eta beste kanpainak dendetan	58.351	3,03	44.255	2,26	68.146	3,95
Elikagaien beste Bankuak/Nekazaritza Ministerioa/FESBAL	434.995	22,58	559.758	28,5	412.520	23,89
GUZTIRA	1.925.850	100	1.959.189	100,00	1.726.754	100,00

Jakien arabera

	2022		2023		2024	
	Kg	%	Kg	%	Kg	%
Olioak, grasak eta gehigarriak gabekoak	46.012	2,39	31.050	1,58	12.476	0,72
Haurren elikadura (*)	10.520	0,55	5.326	0,27	3.837	0,22
Jaki lehorrak (lekaleak, pasta...)	150.708	7,83	55.410	2,83	90.624	5,25
Alkoholik gabeko edariak	318.707	16,55	364.068	18,58	282.592	16,36
Okela eta arrainak			140.914	7,19	139.273	8,06
Kontserbak	110.406	5,73	107.402	5,48	141.031	8,17
Gosariak (ogia, galletak, kakao, laboreak...)	62.368	3,24	123.162	6,29	129.030	7,47
Fruta eta barazkiak	336.365	17,47	402.567	20,55	300.571	17,41
Higiene eta garbiketa	25.696	1,33	30.883	1,58	38.264	2,22
Esneki eta arrautzak	413.248	21,46	393.248	20,08	338.025	19,57
Sailkatu gabe (supermerkatuetan jasotakoa...)	275.069	14,28	305.053	15,57	251.028	14,54
GUZTIRA	1.925.850	100	1.959.189	100	1.726.754	100


(*) Produktu horren zati handi bat "Gosariak" atalari dagokio

2024ko Laburpena


2024 urtean onuradun kopurua murriztu egin da. Horri esker, menuan haragi izoztua, fruitu lehorrak (300 gramoko poltsak) berriro sartu ahal izan dira, haurren menua eta emakumeen higiena mantenduz. Azken helburu horiek funtsezkoak dira Arabako Elikagaien Bankurako.

Bestalde, 2025ean hobekuntza gehigarriak ezarriko dira landare-elikagaien atalean, eta aldizka aplikatuko dira hileko banaketetan.

Jakien banaketa



Diru dohaintzak



	2022	2023	2024
CUZTIRA	553.192 €	688.636 €	665.547 €

(1): Ez dira sartu Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak Jundiz industrialdeko eta Brasil kaleko pabilioien alokairuei buruz egindako ekarpenak, urtean 20.000 € balio dutenak.

DOHAINTZAK EMATEKO MODUAK:

- VISA txartela bidez ordaintzeko plataforman:
<https://bancoalimentosaraba.org/donaciones-economicas/>
- BIZUM bidezko ordainketa, 00025 kodigoa erabiliz
- Transferentzia Banku kontu hauetara:
KUTXABANK: ES58 2095 3153 6191 1448 4071
LABORAL KUTXA: ES72 3035 0099 7509 9011 1111
LA CAIXA: ES74 2100 1419 0102 0019 2118



DOHAINTZA GUZTIEK ZERGA-ARINTZE HANDIA DUTE (%45a)

NON ESKATU ZIURTAGIRIA:

<https://bancoalimentosaraba.org/donaciones-economicas/>



BANAKETA

Behar handien dutenei begira

Nortzuk onuradun

- Eguneroko elikadurarako laguntzaren premia adierazi eta egiaztatu dutenei aldian behingo produktu-sortak ematen zaizkie.
- Hor sartzan dira Elikagaien Bankuarekin hitzartutako erakunde publiko zein pribatuetakoz gizarte-laneko profesionalen onespenez jasotakoak.
- Behar egoeran dauden bitartean ematen zaie laguntza, aldiak berrikuspen eta balorazioak gainditu ondoren.

Nola egindako banaketa

- Jakiak helarazteko Elikagaien Bankuak hainbat prozedura ditu:
- Banaketarako 27 erakunde laguntzaile. Elikagaien Bankuak esleitutako familia bakoitzari beren lokaletan banatzen dizkio.
- 21 kontsumo-zentro. Egunean kontsumitu beharreko elikagai galkorrak jaso eta harrera-zentroetara, egoitzetara eta jantoki sozialetara eramaten dituzte...
- Elikagaien Bankuak Brasil kaleko lokalean soilik premiaz elikagai-sorta behar duten onuradunei banatzen die zuzenean. Ondoren, eta hurrengo emanaldietarako, lehen aipaturako erakunde laguntzailerengana batera bideratzen dira, gizarte-laneko profesionalen balorazioa ondoren.




2024. urtean onuradun bakoitzeko **496 kilo jaki** eman ziren. 2023 urteko datu bat hartuz, Espainian batez besteko pertsona kontsumoa urtean **546 kilokoa da, pertsona bakoitzeko batez beste dietaren % 91a** banatu dugu.

2024. urtean onuradun multzoari guztira 1.535.506 kilo eman zaizkio.
Banaketa honen arabera:

Beharrean diren familiei laguntzak (Banaketa elkarteak): **1.160.619 kilo**

Jantoki sozialak, egoitzak (Kontsumo elkarteak): **253.823 kilo**

Larrialdizko laguntzak (Heldu eta adingabeak): **124.064 kilo**



BANAKETA ELKARTEETAN ONARTUTAKO ONURADUNEN DATUAK (erreferentzia-data: 2024ko abenduaren 31a)

PERTSONA MOTAK

urtea	GIZABANAKOAK	FAMILIAK	HELDUAK	HAURRAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEAK
2024	2.484	1.053	2.391	93	1.163	1.321

ADINAREN ARABERA

0 -- 2 urte	3 -- 15 urte	16 -- 64 urte	65 urtetik gora	OROTARA
141	677	1.590	76	2.484

BANAKETA GEOGRAFIKOA KOADRILAKA

Koadrila	Gizabanako	Familiak
GASTEIZ	2.099	897
LAUTADA	236	90
CORBEIALDEA	63	28
AÑANA	33	18
KANPEZU-MENDIALDEA	28	14
GUARDIA-ARABAKO ERRIOKA	20	4
AIALA	5	2
OROTARA	2.484	1.053

VITORIA-GASTEIZ

Zonaldea	Gizabanako	Familiak
ZONALDEA	630	281
IPAR MENDEBALDEA	550	235
EKIALDEA	341	125
HEGO MENDEBALDEA	261	114
ERDIALDEA	215	94
IPAR EKIALDEA	102	48
HEGO EKIALDEA		
OROTARA	2.099	897

Premiazko eta/edo aldi baterako elikagai banaketa kontsumo-erakundeetan eta Brasil kaleko lokaletan egindakoa

	2021	2022	2023	2024
	Gizabanako	Gizabanako	Gizabanako	Gizabanako
Kontsumo erakundetan	461	383	391	504
Brasil kaleko lokaletan	1.650	1.897	1.723	1.825

LORPENAK

Nola igaro da 2024 urtea





Arabako gizartean pobreziaren aurkako borrokan erreferente gisa sendotzea.

Nabarmen hazi dira partikularrek emandako baliabide ekonomiko eta elikadurak, eta hainbat kolektibok kanpaina gehiago sustatu dituzte. Bestalde, fundazio, enpresa eta erakunde publikoetatik jasotako laguntzak gehitu egin dira, eta horrek gure eginkizunetan aurrera egitea ahalbidetzen digu.



Boluntario kopuruak gora egin du.

Elikagaien Bankuko boluntario aktibo eta iraunkor kopurua %20 hazi da, eta horrek gure antolaketa-sistemak hobetsi eta lanak eraginkorragoak bilakatzen ditu. Boluntario kopuruan izandako igoeraz gain, supermerkatuetako kanpainetan parte hartzen duten koordinatzaile eta boluntario kopurua ere igo egin da.



Onuradunei gogoko zaie banaketa eta gizarte-laguntzako zerbitzuen kalitate/kantitateak hobera egin izana.

Aurreko urteetako "dieta hobetua" berrezarri nahian, aurtun produktu garesti gehiago lortu ahal izan dugu, hala nola haragia, fruitu lehorrak eta higienekoak. Gainera, premia-egoeran dagoen pertsonari gizarte-zerbitzuetan laguntza eskatzeko aurkezten denetik Elikagaien Bankuak artatzen dion arteko denbora laburtzea lortu dugu. Adibidez, eskaeren % 51 egun berean kudeatzen dira, eta % 35 hurrengo egunean.



Elikagaien Bankuko kontuez Ikuskaritzak eskatutako baldintzak gainditu dira.

Elikagaien Bankuko kontuei auditoretzak ezarritako baldintzak arrakastaz bete ditugu. Zubizarreta Consulting SLK eskatutako baldintzak egokitu eta aplikatzea erronka bizikoa izan da, baina ezarritako behaketa ondoren atsegin handiz jakinarazten dugu aurreikuspen guztiak gainditu ditugula. Gardentasuna funtsezko oinarria izanik guretzat, helburu hori lortuta gauzak ondo eginda aurkeztu gaitezke gure ongileen aurrean.



Ingurumen jasangarriaren aldeko laguntza.

Ana Castaño Valiente, EHUKo IKASLE eta Elikagaien Bankuko boluntarioa, ondorio esanguratsu honetara iritsi da Gradu Amaierako lanean: bestela alferrik galduko ziren elikagaien erabilgarritasunak atmosferara CO2 mailako 4.092,27 tona isurtzea saihestu zuen 2023an. Gainera, ontziak bildu eta hautatzeko ezarritako sistema bidez, 10 tona kartoi eta plastiko baino gehiago birziklatu eta lehengai erabilgarri bihurtu ahal izan dira.



<https://bancoalimentosaraba.org/download/5933/?tmstv=1740137386>

ERRONKAK

Nola egin aurre 2025 urteari



1

Onuradunen gogobetetze handiagoa

Eskaingarri dugun "hileko dieta" hobetzeko konpromisoa dugu, eta baliabide ekonomikoek ahalbidetu ezker, barazki gehiago banatzen saiatuko gara. Gainera, laguntza eskatzen denetik ematen den arteko itxaron denbora murriztu nahi dugu, onuradunek laguntza ahalik eta azkarren jaso dezaten. Gasteizko Udalaren eta Vital Fundazioaren lankidetzari esker Brasil kaleko banaketa-lokalaren zoladura egokituko da, laguntza jasotzera doazenei esperientzia hobea eskainiz. Lanean gabiltza zerbitzu hobeagoa lortzeko!

2

Jakien sarrera-irteera sistema azterketa

Cure helburua unibertsitate erakundeekin elkarlanean jarraitzea da, horretarako Mondragon Unibertsitatearen kanpo laguntza espero dugu. Funtsezko laguntza izango zaigu jaso eta banatzen ditugun produktuen kudeaketa eraginkorrako aztertze. Lankidetzak horrek gure lana eta gizartearekiko eragina nabarmen hobetu dezakela uste dugu.

3

Europako Gizarte Funtsaren bidea

Erakunde honetatik jasotako laguntzak "Txanpon-txartelan" zehazten dira; horien bidez, onuradunek saltokietan jaso ditzakete elikagaiak. Sistema hau gure erakundearen abiatzeko aukera eraginkorak aztertuko dira, zailtasunak, alde onak eta txarrak alderatuz.

ELIKAGAIEN GALERA ETA ALFERRIK GALTZEAREN LEGE-PROIEKTUA

Lege-proiektua 2014ko abenduaren 19an onartu zuen Kongresuaren Osoko Bilkurak. Lege horrek elikadura katearen parte gisa hartzen ditu Elikadura Bankuak, eta hor arautzen dena behartzen ditu.

Ondorioz, Elikagaien Bankuek asmo handiko proiektua prestatu dute, araudi berriak ezarritako erronkari modu bateratu eta eraginkorrean erantzuteko. Elikagaien Bankuko kide guztientzat konpromiso eta lan-ahalegin handia izango da. **B PLANA** izena du.

Zer ba B Plana?

B Plana proiektu berritzaile eta eraldatzailea da. Elikagai Bankuei eta elikatze-kateko kide guztiei beharrezko tresnak ematen dizkie jaki-soberakinen berrerabileran eraginkorrako izateko, betiere pertsona ahulenen mesedetan.

Zergatik sortu da?


Jakiak alferrik galtzearen aurkako borrokan Elikagai Bankuen kudeaketa hobetzeko helburuz sortu da, pertsonen eta planetaren alde, baita Elikagaien galera eta alferrik galtzearen Lege-Proiektuan ezarritako lege-esparru berrira egokitzeko.

Elikagaiak alferrik galtzeari buruzko Lege-Proiektuaren helburua Espainian urtero botatzen diren kontsumitu gabeko jakiak gutxitzea da. Zehazki, 2030erako elikagaien batz besteko alferrik galtzea 2020arekin alderatuta erdira murriztea ezartzen du, eta ekoizpen-hornidura kateetan jakien galera % 20 murriztea.

Zertan datza?

B Plana plataforma teknologiko batean oinarritzen da, dohaintzak prozesu erraz eta eraginkor baten bidez erraztuz, dohaintza prozesuaren trazabilitatea eta segurtasuna bermatuz eta emaila, Elikagai Bankuen eta erakunde onuradunen arteko lotura sendoa ahalbidetuz.


ERANSKINAK



Kontularitza, kobrantzak eta ordainketak 2024 urtean. Aurreikuspenak 2025 urterako


ORDAINKETAK 2024an	LORTUA 2024	AURREIKUSPENA 2025
INBERTSIOAK	9.135 €	20.150 €
Makineria, hornikuntza erosketak eta besteak	9.135 €	20.150 €
GASTUEN ORDAINKETAK	185.553 €	237.850 €
Alokairu eta kanonak	11.732 €	11.550 €
Konponketak eta mantentzea	33.213 €	84.150 €
Profesional independenteen zerbitzuak	6.661 €	11.500 €
Garraioak	30.593 €	31.900 €
Aseguru sariak	2.347 €	2.700 €
Banku zerbitzuak eta antzekoak	609 €	520 €
Komunikazioa, zabalkundea eta Bilketa Erraldoiaren Gastuak	15.609 €	7.100 €
Horniketak	18.236 €	20.620 €
Beste zerbitzuak	30.415 €	29.750 €
Soldata eta lan-sariak	28.005 €	28.700 €
Enpresak Segurantzaren Sozialari ordaindu beharrekoa	8.133 €	9.360 €
DANA LEVANTEKO KALTETUEI DIRU-LAGUNTZA	80.000 €	0 €
Bankuak Valentziara Dana-Levanteko kaltetuei igorritakoa	80.000 €	0 €
ALTORTATEGIAREN KONTURA EROSITAKO ELIKAGAIAK	166.843 €	330.000 €
Valentziako Bankuari ordaindutako Elikagaiak	9.612 €	0 €
Altortegiaren kontura erositako elikagaiak	157.231 €	330.000 €
DANA LEVANTEN JASANDAKO HARTZEKODUN eta KALTETUAK	11.388 €	0 €
Dana-ko kaltetuei bidalia	11.388 €	0 €
	452.919 €	588.000 €
KOBRANTZA 2024. URTEA		
Diru-laguntzak eta dohaintzak		
Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntzak	24.000 €	12.000 €
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak	34.875 €	29.567 €
Udalen diru-laguntzak	42.180 €	32.800 €
Fesbal bidezko diru-laguntzak/dohaintzak	22.064 €	3.000 €
Partikularren dohaintzak	204.900 €	174.000 €
Enpresak edo euren fundazioen dohaintzak	134.824 €	169.000 €
Elkarteak, Ikastetxeak eta taldeen... kanpainak	33.377 €	37.633 €
Dohaintzak Dana-gatik kaltetuentzat	11.388 €	0 €
	507.608 €	458.000 €
SUPERMERKATU BONOAK 2024		
Bonoen aurreko diru-balantza (31/12/2023)	121.950 €	117.203 €
Bono bidezko dohaintzak supermerkatuetan	157.939 €	150.000 €
Supermerkatuetan jasotako Bonoen bidezko erosketak	162.686 €	150.000 €
BONOEN DIRU-BALANTZA BERRIA (31/12/2024)	117.203 €	117.203 €

FUNTSEN JATORRIA 2024an



■ FUNTS PUBLIKOAK: 101.055 €
■ FESBAL: 22.064 €
■ PARTIKULARRAK: 542.428 €

FUNTSEN ERABILERA 2024an



■ INBERTSIOAK MAKINERIAN: 9.135 €
■ FUNTZIONAMENDU GASTUAK: 185.553 €
■ DIRU-LAGUNTZA DANA LEVANTE-KO KALTETUEI: 101.000 €
■ ELIKAGAIEN EROSKETAK: 319.917 €

2024 ESKER ONA EMATEN DIEGU

Industria eta elikadura enpresak

AGRALCO Kooperatiba
 AGRICULTURA Y ENSAYO
 ALAVESA PATATAS Sozietate Anonimoa
 ARTEPAN
 EGIA Kafeak
 LA FORTALEZA Kafeak
 LA BRASILEÑA Kafeak
 COMUNION (Araba)
 BEDARONA IZOKINAK Sozietate Mugatua
 DIMIDULCES IBERIA Sozietate Mugatua
 DISTRIBUCION GRAL ALAVESA DIGASA Sozietate Anonimoa
 LANTZIEGO Banaketak
 EL PATRIARCA
 RAMOS Fruta-denda
 GIRALDO COCINAMOS PARA TI Sozietate Mugatua
 AN TALDE Kooperatiba
 BIMBO Taldea
 TUESTA Labeak
 IBERMATICA-AYESA
 KAIKU 0 KM. GASTEIZ
 ARABA LABORATEGI BROMATOLOGIKOAK Sozietate Anonimoa
 MAGIC ALL GOAL
 MORATO IBERIA Sozietate Mugatua
 NATUBER Patata Eraldatuak
 NEIKER TECNALIA
 OSCAR LOPEZ LA CALLE (BOLIBAR)
 TXISTU Gozotegia
 PATURPAT Kooperatiba
 PEPSICO-IBERIA
 RAMIRO (AÑASTRO)
 S.A.C. - J.R.S.L.
 SAGARMIN EKOLOGIKOA

Beste enpresa eta ekoizle industrialak

ABRASIVOS PFERD-RÜGGEBERG Sozietate Anonimoa
 AGROMOTOR
 ALETXA 2000 Aholkulariak
 AMANCIO ORTEGA (FESBAL)
 ARABA ASCENTIUM Sozietate Mugatua L- IROMAN
 ARAGONESA DE PIENSOS Sozietate Anonimoa
 ARF GASTEIZ
 ARTESANOS CON AMOR
 ALEGRIA Autobusak
 CLAXON Autoeskola
 BK CONSULTING Abokatuak
 CARTEDYAM
 CASIMIRO BRIZ Aseguru Bitartekariak Sozietate Mugatua
 CAYPE CREATIVA
 CELSA ATLANTIC Sozietate Mugatua
 CIE AUTOMOTIVE
 COHER GASTEIZ Banaketak Sozietate Mugatua

ARABAKO Abokatuen Elkargoa

COMERCIAL SAN PRUDENCIO
 FRANCO RIOJANAS Kontserbak Sozietate Anonimoa
 GRUS Supermerkatu Konstelazioa Sozietate Mugatua
 ARTANZAKO D.H.L. EXPRESS SERVICE POINT
 DACHER SPAIN LOGISTICS Sozietate Anonimoa
 DULCA Sozietate Mugatua
 ECUTRANS GLOBAL LOGISTIC Sozietate Mugatua
 ESTUDIOS URIARTE
 OCHOA DE RETANA GLEZ-MORENO Botika
 GALLARDO Sozietate Mugatua
 GENERAL QUIMICA Sozietate Anonimoa
 ACENTUM Gimnasioa
 DIFERENCIALES Taldea
 SAC-FEC Taldea
 HUERCASA 5. GAMA Sozietate Mugatua
 INDUSTRIAL AUXILIAR ALAVESA
 JEDSA Enbalajeak Sozietate Mugatua
 JON SEVILLA "UNA RACIÓN UNA SOLUCIÓN"
 KREAN GROUP Sozietate Kooperatiboa
 ARREGUI Laminatuak
 LASKARAY Sozietate Anonimoa
 ARABAKO LAUTADA Industrialdea
 LEA
 LIMITE ANDAMUR Sozietate Mugatua
 BERALKO LOGISTIKA Sozietate Mugatua
 LORAMENDI S. Kooperatiba
 MERCAPACK
 MICHELIN ESPAINIA PORTUGAL Sozietate Mugatua
 NADACE VIA
 NORTEGAS ENERGIA Sozietate Mugatua
 NOALTIA
 NULL Gestorea
 ORHELA Inbertsioak Sozietate Mugatua
 OYEMIKEL Sozietate Anonimoa
 ZABALLAKO Espetxe Pastoraliza
 PEPSICO VCC-ko langileak
 FRIDELA Aurrez Kozinatuak
 BELL Publizitatea
 R.P.K. S. Kooperatiba
 RINOR Sozietate Mugatua
 SENDATEK Sozietate Mugatua
 STEF
 URIARTE Garraioak
 TUVISA
 XPO Logistika
 ZOLVE VITORIA Sozietate Anonimoa (LOGIFRIO)

Supermerkatu kateak

ALCAMPO
 ALDI
 ISABELLE Elikagaiak
 BM Supermerkatuak
 CARREFOUR
 CARREFOUR GORBEIA
 DIA
 CORTE INGLES
 EROSKI
 LECLERC
 LIDL
 MAKRO
 MERCADONA

Kultura, Hezkuntza, Aisialdia, Gizarte, Kirol taldeak...

HELEN DORON ENGLISH Akademia
 ALOKABIDE eta VISESA
 SAN ANTON ADISKIDEAK
 ARMENTIA Ikastola
 AZKENA ROCK Festibala
 ESTIBALIZKO AMA Kultur Elkartea
 ERAKUSMETA Elkartea
 LAGUN ETXEA Elkartea
 ABETXUKO-ko Auzo Elkartea
 ZAPOREAK Elkartea
 HEGOALDE Liburutegia
 LABORAL KUTXA
 ANGOSTO Kanpalekua
 ALDAIALDE Haur--Lehen Hezkuntza Ikastetxea
 TOKI-EDER IKASTOLA Haur--Lehen Hezkuntza Ikastetxea
 CEIP IZARRA Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxea
 UNAMUNZAGA (RIVABELLOSA) Haur--Lehen Hezkuntza Ikastetxea
 ZABALGANA Haur--Lehen Hezkuntza Ikastetxea
 ALDABE Gizarte Etxea
 JUDIZMENDI Gizarte Etxea
 ARTZINIEGA-ko Txirrindulari Elkartea
 SAN IGNACIO Futbol Taldea
 NUESTRO SEÑOR DE LA CRUZ A CUESTAS Kofradia
 SAN ANDRES APOSTOLUA Kofradia (Eltziego)
 MARIANISTAK Komunitate Erlijiosoa
 SANTA JOAQUINA VEDRUNA Komunitate Erlijiosoa
 GURASOAK-SAN VIATOR Abesbatza
 LAUTADA Abesbatza
 FRANCISCO DE VITORIA Bigarren Hezkuntzako Institutua
 MENDIZABALA Lanbide Ikastetxea
 ESCOLAPIOS Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
 ESCOLAPIOS Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
 INMACULADA CONCEPCION Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea

“Daudenak denak dira, baina ez daude diren guztiak...”

Emailak gure jardueraren ardatza dira. Bere eskuzabaltasunari esker, baliabide faltan diren asko eta askori lagundu geniezaieke. Guretzat akuilagarri bikaina dira gizarte beharren laguntze-bidean jarduteko. Eskerrak guztioi. Badakigu denetara heltzea ezineko zaigula, baina zuek gabe ez ginateke inora helduko.

INMACULADA Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
LA MILAGROSA Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
MERCEDARIAS Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
NAZARETH Haur--Lehen Hezkuntza--Bigarren Ikastetxea
NCLIC Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
RAIMUNDO OLABIDE Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
PRESENTACIÓN DE MARIA Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
SAGRADO CORAZÓN - CARMELITAS Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
SAGRADO CORAZÓN - CORAZONISTAS Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
SAN PRUDENCIO Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
SAN VIATOR Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
SANTA MARIA-MARIANISTAS Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
URKIDE Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
VERA CRUZ Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
VIRGEN NIÑA Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
EGIBIDE Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
BASATIAK Blusen Koadrila
OKERRAK Blusen Koadrila
DOMUSVI - ARIZNABARRA Gizarte Laguntza Taldea
ELISA RUEDA (Poeta)
MAEZTU Tabako-denda
ESTEBAN LIZARRAGA&VICTORIA ECHEVERRIA (ADANIA) Fundazioa
LA CAIXA Fundazioa
BID Fundazio Soziala
VALLE SALADO ANANA Fundazioa
VICENTE FERRER-BRAZADAS SOLIDARIAS Fundazioa
VITAL Fundazioa
ITXAPORENA Gizarte Eraldaketan Laguntza Taldea
KALE HEZITZAILE Taldea
HAZI Fundazioa
CIUDAD JARDIN Institutua
VHITAS-VITORIA Ospitalea
IBAIONDO Ikastola
EKIALDE Institutua
KOLDO MITXELENA Institutua
LAKUA Institutua
LAUDIOKO Institutua
LOS HERRAN Institutua
MENDEBALDEA Institutua
MIGUEL DE UNAMUNO Institutua
MURGUIA Institutua

ZARAOBE Institutua
IKASBIDEA Ikastola/Ikastetxe Publiko Integrala (DURANA)
TOKI-EDER Ikastola
INDAR BASKONIA
IRAULTZA Alaves Futbol Taldeko Lagun-taldea
IRUÑA VELEIA Ikastola
JESUS ITURRALDE (Musikaria)
JOSE CARLOS ONTAÑÓN
KOMEDIALDIA
MERCEDES BENZ, Arku-Tiro Kluba
NIKA BITCHIASHVILI (biolin jotzailea)
SAN MATEO APOSTOLUA parrokia
ARIZNABARRA Zaharren Egoitza
SAN PRUDENCIO Egoitza
IZKI (MAEZTU) Jatetxea
SALBURUA Ikastetxea
SAN PRUDENCIO Haur--Lehen--Bigarren Hezkuntza Ikastetxea
ESKOLA ZAHARRA Elkartea
MANUEL IRADIER Mendizale Elkartea
TXAGORRITXUKO Haur--Ama Unitatea

Erakunde Publikoak

GASTEIZko Udala
DULANTZIKo Udala
AMURRIOko Udala
ARRAZUA-UBARRUNDIAko Udala
BURGELUKo Udala
EL CIEGOKo Udala
ARGANTZUNgo Udala
SAN VICENTE ARANAKo Udala
ARABAKO ESPETXEA
ARABAKO FORU ALDUNDIA (Ongizate Sozialako Foru Institutua)
EUSKO JAURLARITZA
ANTOÑANAKo Herri Batzarra
EGINOKo Herri Batzarra
GAMARRA HANDIKO Herri Batzarra
MAESTUKo Herri Batzarra
SARRIAko Herri Batzarra

Komunikabideak

COPE Irrati Katea
SER Irrati Katea
DATO ECONOMICO
BERRIA Egunkaria
DIARIO DE NOTICIAS DE ALAVA Egunkaria
EL CORREO Egunkaria
EUSKAL TELEBISTA
GASTEIZ HOY
ONDA CERO
GORBEA Irratia
MARCA KIROLEROS Irratia
RADIO NACIONAL DE ESPAÑA
VITORIA - Euskal Irratia

Elikagaiak banatzen dituzten Elkartek

ARABAKO GIZARTE LAN ELKARTEA - AGLE
RIO DE VIDA Laguntza Sozialako Elkartea
COLOMBIA-EUSKADI Elkartea
SALLURTEGiko ANDREAK Kultur Elkartea
Gasteizko CUATRO TORRES Elkartea
REFLEJOS DE ESPERANZA Behartsuei Laguntza Elkartea
AFRO-AMERIKAR EGOILIARREN Elkartea
NUEVO FUTURO Elkartea
DULABEA Boluntario Elkartea (Dulantzi)
MANA Elkartea
ARTZINIEGAKo Udala
MARIA RIVIER Fundazioa
GAMBIA EUSKADI
GAO LACHO DROM Bastida
GAO LACHO DROM Gasteiz
TELEFONIKAKo Adinduen Taldea
ELEIZA EBANJELIKO BAUTISTA
ITAKA ESKOLAPIOAK
MBOOLO Elkartea
NUEVA VIDA Misio Ebanjelikoa
SAN PABLO parrokia
SANTA CLARA parrokia
BERAKAH Programa-SANTA MARIA parrokia
AÑANAKo Ekialde eta Mendebaldeko Zerbitzu Sozialak
TRESNAK SOCIAL GLOBAL
“HAALY-PULAR” Pular hiztunen batasun babeslea

2024 Urteko Memoriaren euskarazko itzultzailea: Patxi Otamendi

Mila esker dohaintza-emaile anonimo eta izendatuei, beren ekarpen ekonomikoei esker Arabako gizarte ahulenen elikadura-beharren laguntzan Arabako Elikagaien Bankuari lanean jarraitzea ahalbidetzen diezuelako.

ESKERRIK ASKO!



EL RINCÓN SOLIDARIO

EL RINCÓN SOLIDARIO



EL BANCO DE ALIMENTOS DE ÁLAVA CUENTA CON LA CONFIANZA DE LA CIUDADANÍA

LOS PROCEDIMIENTOS PARA VALIDAR LA SITUACIÓN DE LOS SOLICITANTES PRETENDEN GARANTIZAR UN REPARTO JUSTO A QUIENES ACREDITEN SU NECESIDAD EVITANDO FRAUDES Y ENGAÑOS

¿CÓMO LLEGA Y QUÉ NOS PUEDE DAR?

El Banco de Alimentos de Araba (BAA) es una asociación de carácter benéfico sin ánimo de lucro. Tiene como fin, el colaborar en la solución de problemas de alimentación, para y pobreza, mediante la captación, almacenamiento y distribución gratuita de excedentes de alimentos y otros artículos de primera necesidad o productos caducados y personas necesitadas. Una de las mayores preocupaciones del BAA es contar con la suficiente garantía de que los beneficiarios acrediten su estado de carencia real o de necesidad, así como de evitar fraudes, situaciones de injusticia o que no se desperdicien los alimentos, es por eso que se establecen unos procedimientos de validación de la necesidad de los solicitantes.

El BAA considera clave esta tarea, no solo para cubrir las necesidades reales, sino también para sensibilizar y proyectar a la sociedad una imagen de credibilidad a través del rigor

y de la transparencia, así como es fundamental para seguir contando con la generosidad de quienes confían en nosotros.

¿CÓMO LLEGA?

• Quien, habiendo acreditado su estado de necesidad, recibe periódicamente lotes de productos como ayuda a su alimentación diaria.

• Al que vive en esta condición quien recibe la información de producción del trabajo social tanto de entidades públicas como privadas conexas con el BAA.

• Tiene la opción durante el tiempo en el que se mantiene esa condición de ir a revisiones y valoraciones periódicas.

¿CÓMO LLEGA?

El BAA dispone de varios procedimientos para hacer la entrega de los alimentos:

- 28 entidades colaboradoras de reparto. Las que los distribuyen en

su propia local o como familia acogida por el BAA.

• 19 centros de Consumo. Reciben los alimentos para distribuirlos a personas que precisan un consumo diario para entregarlos a centros de acogida, residencias y comedores sociales.

El BAA solo reparte directamente, en su local de la calle Brasil, a aquellas beneficiarias que requieren, con carácter urgente, un lote de alimentos. Posteriormente para sucesivos entregas, se le deriva a alguna de las entidades colaboradoras anteriormente mencionadas.

Si quieres DONAR de forma segura, puedes hacerlo a través de la página web www.bancoalimentosaraba.org mediante la plataforma REDLIM-álava 001026. Tus entregas tienen una deducción fiscal de un 40%.



EL CORREO
INFORMACIÓN CON VALOR

C/ Euzkadi, 34 - Pº 5º - Polígono Jarritu, Miria-Euzkadi. | 945 21 32 33 | www.bancoalimentosaraba.org

EL RINCÓN SOLIDARIO

BATALLA CONTRA EL DESPERDICIO DE ALIMENTOS

¿QUÉ PUEDES HACER POR LA SUMA DE ACCIONES INDIVIDUALES PUEDE TENER UN GRAN IMPACTO EN LA SALUD DEL PLANETA

Desperdiciar alimentos nuestros una parte de la población para hacerlos es una vergüenza que con esas actitudes estamos desperdiciando en la cadena de producción, a la par que estamos nuestra responsabilidad individual. Los datos reflejan en todo como negativos. Según cifras del Fondo de la ONU para la Alimentación y la Agricultura, se pierden al año 1.300 millones de toneladas de comida producida para el consumo humano, en todo el mundo. Y este desperdicio lleva a resaltar la riqueza del 20% de las tierras productivas de todo el planeta. En España el desperdicio por persona y año alcanza los 142 kilos. En la batalla contra el desperdicio, la Unión Europea pretende que, para 2030, se ejecute a los Estados miembros reducir un 30% el desperdicio alimentario en supermercados, restaurantes y hogares, así como otro 10% más en el ámbito de la manufactura y el procesamiento. Pero en realidad la guerra contra el desperdicio empieza por cada uno de nosotros. ¿Qué puedo hacer yo? es la pregunta a la que debemos responder sin ambigüedad. A la hora de elegir, el primer hábito para reducir el desperdicio alimentario, los expertos lo tienen claro. Toda comienza en el momento de la compra. «Lo más importante es hacer una buena planificación de la compra en función de nuestras necesidades de consumo. Y aquí es importante no dejarse llevar por ofertas que nos hacen comprar cantidades que no necesitamos», señala. Después la compra y la despensa antes de la compra y el día a día una vez que es fundamental para llevarnos correctamente la limpieza.

Otra buena práctica es hacer la lista de la compra después de haber decidido los diferentes menús de la semana. Esto nos ayuda no solo a comprar lo imprescindible, sino



también a aprovechar los alimentos que ya tenemos en casa y a planificar las compras en función de su caducidad. Desde The European Food Information Council que uno de los trucos más sencillos para evitar que terminemos tirando la comida a la basura es servir raciones más pequeñas y ser generosos con los restos. Conservar bien los alimentos al organizar la zona del frigorífico en que los guardamos es fundamental, al igual que diferenciar entre fecha de caducidad y de consumo preferente. La fecha de caducidad se incluye en productos en los que existe un tiempo de conservación puede conllevar problemas para nuestra salud, mientras la fecha de consumo preferente solo indica que ese producto puede perder algún

característica organoléptica, como la textura, el sabor, el aroma o el color, pero no supone un problema para la salud. Puede parecer poco relevante, pero compartir con nuestro entorno la importancia de reducir el desperdicio alimentario puede ser igual de importante (o más) que en tirar los restos a la basura. Al compartir nuestra motivación y compartir ideas y consejos, conseguimos que más personas aprovechen al máximo sus alimentos. La suma de acciones individuales puede tener un gran impacto en la salud del planeta, como se ha demostrado con otras prácticas. Y por eso es tan importante la concienciación individual.

Si quieres DONAR de forma segura, puedes hacerlo a través de la página web www.bancoalimentosaraba.org mediante la plataforma REDLIM-álava 001026. Tus entregas tienen una deducción fiscal de un 40%.



EL CORREO
INFORMACIÓN CON VALOR

C/ Euzkadi, 34 - Pº 5º - Polígono Jarritu, Miria-Euzkadi. | 945 21 32 33 | www.bancoalimentosaraba.org



2024
M E M O R I A